

Bezeroekiko harremanak:

Gure bezeroekin izango ditugun harreman guztiak "txat" edo posta elektronikoz izango dira. Horrela, bezeroak izan ahal dituzten galdera edo arazo guztiak argitu ahalko dituzte, denda fisiko batera joan gabe.

Bestalde, arazo tekniko bat baldin badute gure zerbitzua ekainiko diegu, eta data bat zehaztu ondoren, tekniko bat bidaliko genioke, duten arazoa konpontzeko.

Horrez gain, gure mahaiak nola funtzionatzen ari diren galdetuko diegu posta elektroniko baten bidez hilabetero, horrela egin ahal ditugun hobekuntzak jasoko ditugu eta bezeroarekin harreman estuago bat eraikiko dugu.

